



IRAGARKIA

Alkateak 2024ko ekainaren 11n emandako dekretu baten bitartez “Bergara Bizi” bonu-laguntzen 2024 urteko deialdia onartu da eta honen bidez argitaratzen da hartutako erabakia:

“Bergarako udalbatzak 2022ko uztailaren 18an erabaki zuen Ikasleei zuzendutako “Bergara Bizi” bonu-laguntza arautzen zuen udal ordenantza onartzea, eta behin betirako onartuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2022ko irailaren 16an.

Ordenantzak dioenari jarraituz,

ERABAKI DUT:

LEHENENGOA: 2024rako deialdia egitea eta bonu hauetarako 15.330 euroko gastua onartzea 1.3330.480.326.00.01 (1588 barne kodea) partidaren kontura, adierazita bonu-laguntzak eskatzeko epea 2024ko urriaren 31n bukatzen dela.

BIGARRENA: Gogoraraztea eskatzaileek honako baldintzak bete beharko dituztela, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunean:

- DBE edo/eta GLL laguntzen onuraduna izatea.
- Onuraduna izango den ikaslearen gurasoren bat Bergaran etengabe erroldatuta egon izana gutxienez azken sei hilabeteetan. Udalak hau ofizioz egiaztatuko du.
- Bere kargu izatea 3 eta 18 urte bitarteko (biak barne) pertsonak, laguntza-deialdia egiten den urtean beteta.
- Derrigorrezko eskolaratze adina gainditu duten ikasleen kasuan (16 urtetik gorakoak), ikasle-egoera ziurtatzea. Horretarako, araututako ikasketak gauzatzen ari direla ziurtatzeko matrikula-ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- Bergarako Udalarekin inolako zorrik ez izatea. Udalak hau ofizioz egiaztatuko du.
- 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluko debeku-kasuetan ez egotea.

HIRUGARRENA: Bonuak arautzen dituen ordenantzaren 5. artikuluari jarraituz egingo da banaketa.

Dekretu honetako aurreko puntuan aipatutako baldintzak betetzen dituzten herritarrek udaleko idatzia jasoko dute honen berri emanez. Baina edozein arrazoirengatik gutuna jaso ez dutenek eta onuradun izateko baldintzak betetzen dituztenek ere, 2024ko urriaren 31ra arteko epea dute bonu-eskaera egiteko udaleko erregistro orokorrean.



LAUGARRENA: Deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratzea.”

Bergara, 2024ko ekainaren 14a

Behin-behineko Idazkaria